

# Aiaraldea JAIETAN

*San Prudentzio, San Jose, Gardea eta  
Otxomaio jaiei buruzko gehigarri berezia*

# Aiarako jaiak

## Hiru eguneko egitarau bizia izango dute sanprudentzioek Aiaran



**SAN PRUDENTZIO JAIK** OSPATUKO DITUZTE AIARAN APIRILAREN AZKEN ASTEBURUAN. KAOS ETILIKO, AKERBELTZ, PATXI PEREZ ETA CASTANHA E VINOVEL OKZITANIAKO TALDEA IZANGO DIRA MUSIKA OSAGAI NAGUSIAK EGITARAUAN.

**Testua** Aitor Aspuru Saez

Apirilaren 26tik 28ra bitartean izango dira Aiarako sanprudentzioak eta Udalak egitarau osoa zabaldu du jadanik. Aurreratu bezala, Aiar Dantza Taldea izango da pregoilaria eta Aitor Aspuru Etxegoingo herritarra txupineroa. Euren eskutik abiatuko dituzte ospakizunak hileko 26an, 18:45ean.

Egun horretan protagonista gehiago izango dituzte jaiak, Akerbeltz erromeria famatua edota DJ Markelin, esaterako.

Larunbatean ohiko egitarauari (nagusien zein umeen ekintzak, txirindularitza...) musika eskaintza zabala batuko zaio, Xaibor, Kaos Etiliko eta DJ Aiararen (Dardarako kidea) eskutik.

Igandean San Prudentzio Eguna ospatuko dute

Etxaurren Ikastolako danborradren burrunbaz. Musikaren aldetik, Patxi Perezek urteroko dantza plaza arrakastatsua bideratuko du eta Castanha e Vinovel taldeak Okzitaniako doinuak eramango ditu Arespalditzara.

Aiarako Udalak autobus zerbitzu berezia presatu du inguruko herritarrek festaren erdigunea izango den Arespalditzara bertaratzeko aukera izan dezaten.

Apirilaren 26 eta 27an jarriko dituzte autobusak. Zerbitzua doakoa izango da eta ez da aurretik izena eman beharko. Artziniegatik, Laudiotik eta Amurriotik abiatuko da zerbitzua; 20:30ean, 21:15ean eta 22:00 ean hurrenez hurren. Itzulerako autobusak, aldiz, 04:00ean, 04:45ean eta 05:30ean aterako dira Arespalditzatik; Artziniega, Amurrio eta Audio helburu.

# KOPAS

IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Alda. Urkijo, 88 -2º  
48013 Bilbao  
kopas@kopas.es  
Tfno. 94.442.22.24



Aialako Industrialdea, 8  
01479 Murga - Aiara  
fabrica@kopas.es  
Tfno. 945.39.94.05

[www.kopas.es](http://www.kopas.es)

# Aiarako jaiak

## EGITARAUA

### 04.26 Ostirala

18:45 // Pregoia Aiara Dantza Taldearen eskutik.

19:00 // Txupinazoa Aitor Aspuru botako du.

19:30 // Aiara Dantza Taldearen ikuskizuna.

18:00-20:00 // Kexaan  
Bola-jaurtiketa.



19:00 // Xaibor.

23:00 // Kaos Etilikoren kontzertua.

01:00 // DJ Aiara.



### 04.28 Igandea

20:30 // Txaranga kalejira.

23:00 // Akerbeltz taldea eta, jarraian, DJ Markelin.

10:00 // Xake txapelketa.

10:30 // Txistulari-kalejira.

11:00 // Eskualdeko produktuen azoka.

12:00 // Danborrada Etxaurren Ikastolaren eskutik.

12:30 // Zapiak margotzeko tailerra.

12:30 // Emakumeen herri kirolen erakustaldia.

17:00 // Artzikirol erakustaldia.

19:00 // Patxi Perez.

20:00 // Odoloste jan herrikoa.

20:30 // Castanha e Vinovel

### 04.27 Larunbata

11:00 // Jesús Isasi Memoriala kadeteen txirrindularitza-lasterketa.

11:30-14:00 // Haurrentzako parkea.

12:00 // Haurrentzako tailerra.

12:00-13:00 // Kexaan bola-jaurtiketa.

13:00 // San Prudentzioren omenezko meza, abesbatzak abestua.

14:30 // Etxaurren Ikastolan Nagusien bazkaria, musikaz alaitua.

16:00-18:00 // Haurrentzako parkea.



## Aiarako Jaiak 2024

APIRILAREN 26TIK 28RA

AIARA DANTZA TALDEA · AKERBELTZ · DJ MARKELIN  
TXIRRINDULARITZA LASTERKETA · HAURRENTZAKO EKINTZAK  
BOLA JAURTIKETA · XAIBOR · KAOS ETILIKO · DJ AIARA  
EMAKUMEEN HERRI KIROLAK · PATXI PEREZ · AZOKA

...eta askoz gehiago!



Aiarako Udala  
Ayuntamiento de Ayala

\*AUTOBUS ZERBITZU  
BEREZIA EGONGO DA.

# AIARA San Prudentzio



## Aitor Aspuru, pregoilaria lasaia

Aitor Aspuru dantzari, trikitilari, txalapartari eta panderojole aiarrak jaurtiko du txupinazoa Aiara Jaietan, eta pozik badago ere, lasaitasun osoz hartu du ardura, dantzatzeko irrikan baitago.



**Testua eta argazkia** Aitor Aspuru Saez

dantzatu ere. Ospitalean egon naiz eta erritmoa eta jarduera berriro hartzeko irrikan nago. Berriz martxa hartu nahi dut”.

Aiara Dantza Taldea izango da aurtengo San Prudentzio Jaieko pregoilaria eta Aitor Aspuru Etxegoien herri-tarrari eta taldeko kideari egokitu zaio txupinazoa botatzeko eginbeharra. Aspuru pozik eta patxadaz hartu du mandatua, bera den moduan. “Lehenik eta behin, hedabideen bitartez heldu zitzaidan txupineroa izango nintzela, gero Prudentzio Otegi alkateak deitu ninduen eta jakinarazi zidan. Oso ideia polita iruditzen zait”. Poztasunak, dena den, ez du urduri jarri: “Ni beti nago lasai. Ez nintzen urduri jarri panderoa Kepa Junkera eta Korrontzirekin jo nuen, eta orain ere ez naiz urdurituko. Ni beti nabil lasai”. Izan ere, Etxegoien herri-tarra ohitura dago ekitaldi publikoetan parte hartzerako, duela hogeita hamar urte aritzen baita Aiara Dantza Taldean: “Gizonezkoen artean aktibo dagoen dantzari betanoena naiz. Dena den, dantzari gehienak emakumezkoak dira”, gogoratu du.

Gauzak horrela, pregoiaren eta txupinazoaren ondoren, Aspuru ez du batere aldatuko bere ohiko plana eta taldeak eskainiko duen dantza erakustaldian parte hartuko du: “Lehenik eta behin txupina eta gero dantza”.

Eta ez da hori izango aiarrak agendan azpimarratuta duen hitzordu bakarra. “Patxi Perez ikusi nahi dut eta baita

### Hogei urte dantzan

Aitor Aspuru erakutsi duen euskal kulturaren aldeko konpromisoa luzea da. Umea zelarik sartu zen Aiara Dantza Taldean eta gero musika tresnak menderatzeari ekin dio: “Trikitia, panderoa, txalaparta... Denak gogoko ditut. Orain pandero karratua jotzen ikasten ari naiz”. Horri esker, Euskal Herri osoa bisitatu du “euskal kultura zabaltzen”.

Kepa Junkera eta Korrontzirekin batera jo du, baina eskualdeko musikariekin ere harreman estua dauka. “Isitxu Berazarekin, Lander ‘Txatorkin’, Orozkoko trikitilarekin panderoa jotzen dut... Horrela, hemen ez ezik, Asturiasen, Gaztelan eta munduko beste txoko batzuetan ere aritu izan naiz. Jakina, Kepa Junkera eta Korrontziren kontzertuak bereziak izan ziren, baina guztiak izan ditut gogoko, ez bakarrik horiek”. Hala ere, aiarrak ez du ahaztu nahi dantzaren erroak non dituen, denboran urrun badaude ere: “Nik ikusi nuen dantzan, lehenengo aldiz, Takolo, Pirritx eta Porrotxekin, euren bideoekin. Hori ikusita, nire amak esan zidan Aiara Dantza Taldean sartuko ninduela eta han nago oraindik”. Hogeita hamar urteren ostean, Aitor Aspuru oso argi dauka zergatik jarraitzen duen taldean: “Giroa oso ona da eta jendea izugarria”.

## LAUDIO Gardea auzoa



# Ezohiko ekintza ugari antolatu dituzte Gardeako Jai indarberrietan

**Testua**  
Aitor Aspuru Saez

Duela hilabete gutxi iragarri bezala, Gardeako Jai Batordea guztiz indarberrituta itzuli da eta bultzada hori begien bistakoa da aurtengo egitarauan. Bost eguneko festa izango da guztira eta, ohiko ekintzetatik harago (herri bazkariak, kontzertuak, dantza erakustaldiak...), hitzordu benetan originalak egingo dituzte.

Kirola eta kultura izango

dira ekintza berritzaileen bi ardatzak, eta auzunean da goen ekosistema baliatuko dute horretarako, gehienbat. Horrela, tenis sake txapelketa egongo da, eta parte hartzaileen pilotek hartzen duten abiadura neurtzeko radarra erabiliko dute. Tenisak, padelak, hockeyak, bola jokoak... kirol praktika ez horren hegemonikoez egitarauaren zati bat hartu dute.

Kulturaren esparruan, aldiz, argazki lehiaketa, free tour Orbeke Etxean, bakarriketak,

umore ikuskizunak, formatu txikiko arte eszenikoen jaialdia, Txani Rodriguezen liburu aurkezpena... egongo dira.

Musikari dagokionez, The Smoke Dealers edota The Domestics taldeek joko dute eta, umeentzako musika eskaintzaren barruan, Xaibor izango da protagonista nagusietako bat. Lankaietako Lagunak eta Laudioko Musika Banda ere egongo dira. Jakina, ohiko jarduerak ere ez dira faltako: Arloteen emanaldia, DJak, haurrentzako puzgarriak...

## EGITARAUA

### 05.02

#### Osteguna

15:30 // Gizonzkoen padel txapelketa.

20:00 // **Orbeke Etxean**  
The Domestics

14:00 // Herri bazkaria.

15:30 // Hockey Txapelketa Mistoa: I. Gardea Txapelketa.

16:30 // **Gizarte Etxean I.**  
Mus Txapelketa.

17:00 // Buruhandiak.

18:00 // Txokolate jana herrikoia.

18:30 // Gizonzkoen Padel Txapelketaren Finala.

18:30 // Xaibor diskodantza.

### 05.03

#### Ostirala

12:00 // Meza, eta ondoren luntxa Gizarte etxean.

15:30 // Gizonzkoen padel txapelketa.

17:30 // **Bolatokian**  
Bola txapelketa.

18:00 // **Gizarte Etxean II.** Argazki lehiaketa.

19:00 // **Gizarte Etxean**  
Txani Rodriguezen *La Seca* liburuaren aurkezpena.

20:00 // Txupinazoa eta prillada herrikoia.

21:00 // **Gizarte Etxean**  
DJ Ander.

20:00 // **Gardeako Kultur Gunean**  
Gardearteren 3. edizioa. Formatu Txikiko Arte Eszenikoen Jaialdia.

22:00 // **Gizarte Etxean**  
Kontzertua The Smoke Dealers taldearekin.

### 05.05

#### Igandea

10:00 // Lankaietako lagunak taldearen kalejira.

11:00 // **Gardeako Kultur Gunean**  
Ilustrura tailerra

12:00 // **Orbeke Etxean**  
Haurrentzako grafiti tailerra.

12:30 // Dantzak  
Itxarkundia taldearen eskutik.

13:00 // Freetour  
Orbekoraino Santa Luzia abesbatzarekin.

14:00 // **Orbeke Etxean**  
*La madre que me pario*, elkarretaratzea vermutarekin.

15:00 // **Orbeke Etxean**  
Umerezko saioa Didirekin.

15:00 // **Orbeke Etxean**  
Pintxadiskoak La Prima eta La Vera taldeekin.

### 05.12

#### Igandea

13:00 // **Gizarte Etxean II.** Argazki lehiaketako sari banaketa.

### 05.04

#### Larunbata

10:00 // **Bolatokian**  
Bola txapelketa.

11:00 // Hockey tailerra eta jokoak adin guztientzat.

11:00 // Puzgarriak, tailerrak eta haur eta nagusien jolas tradizionalak Kirikiñorekin.

11:00 // **Gardeako Kultur Gunean**  
Clown eta korporazio tailerra. Izena aurretik eman behar da [gardearte@gmail.com](mailto:gardearte@gmail.com) helbidean.

12:00 // **Gizarte Etxean**  
Arloteen emanaldia.

12:00 // Radar bidezko sake abiadura lehiaketa. Ondoren, entrenamendu irekiak.

13:00 // Kalejira Bide zaharretatik, San Roke Musika Taldearen eskutik.

# AMURRIO San Jose Auzoa

## EGITARRAUA

### 04.27

#### Larunbata

12:00 // Txupinazoa.

12:30 // Kale animazioa trikitrixarekin.

14:00 // Babarrun-jan herrikoa + bingoa.

20:00 // Azteca mariatxiak.

21:00 // Guateke txozneroa.

22:00 // **Gaztetxea**

DJ Hemendik Etxera + Xaukena Xauk + DJ Arriaga.

22:30 // Kontzertuak: Ut! + Dj Blessive.



### 04.28

#### Igandea

17:00 // Haurrentzako jolasak.

17:30 // Buruhandiak.

18:00 // Txokolate jana.

18:30 // Dantza erakustaldia.

19:30-00:00 // Musika: DJ Txumasketa.

### 04.30

#### Asteartea

18:00 // Patin-hockeyko partidua eta doako patinaje-klasea.

21:00 // Guateke txozneroa.

22:00 // **Gaztetxea**

Izate Faltsua + Zinkha + DJ Windows Media Player.

22:30 // Kontzertuak: Rock con ñ + DJ Varro.



### 05.01

#### Asteazkena

11:00 // Txirrindularitza lasterketa.

11:30 // Kale animazioa: Fanfarre Sama Siku.

12:00 // Meza.

13:00 // Vemouth saioa Tutukarekin.



## Musika eskaintza zabala Amurrioko Gaztetxean, San Joseko jaien testuinguruan

**Testua** Aimar Gutierrez Bidarte

Aurreko urteetan egin bezala, aurten ere Amurrioko Gazte Asanbladak ez dio hutsik egin San Jose auzoko jaietako egitaraua osatzeari. Asanbladak kontzertuak eta festa antolatu ditu apirilaren 27 eta 30erako. Bi egunetarako musika eskaintza zabala prestatu dute San Jose auzoko gune autogestionatuaz gozatzeko.

Apirilaren 27an, herriko gazteak arituko dira musika jartzailer lanetan. 22:00etan irekiko dituzte Gaztetxeko ateak eta hiru izango dira gaztetxeko oholtzara igoko diren DJak: DJ Hemendik Etxera, Xaukena Xauk eta DJ Arriaga.

Apirilaren 30ean, ordutegi berdina izango du Gaztetxeko jaialdiak, baina DJak ez ezik musika bandek izango dute protagonismoa. 22:00etan hasita, Izate Faltsua talde ezagunak hartuko du Gaztetxea astintzeko ardura. Jarraian Zinkha taldearen txanda izango da. Eskualdeko musika talde sortu berriaren estreineko kontzertua izango da honakoa, baina honezkero bide makala egin dute. Izan ere Gasteizko Txosnetako Banda Lehiaketa irabazi zuten iragan hilabeteetan.

Kontzertuen ostean ere egongo da gaua eta jai-giroa gune autogestionatuan bertan luzatzeko aukera, DJ Windows Media Player musika jartzaileen eskutik.



# San Joseko Jai Batzordeak egitarau oparoa antolatu du festa-maratoiko lehen jardunaldiaz gozatezko

Egitarau oparoa prestatu du San Joseko Jai Batzordeak aurtengo festetaz gozatezko. Apirilaren 27tik maiatzaren 1era luzatuko da egitaraua, ohiko osagai guztiekin. Auzolanean oinarritutako jaiak dira Amurrioko auzokoak eta batzordetik auzokide guztien inplikazioa eskatu dute, baita errespetuan oinarritutako eta erasorik gabeko jaiak izatea ere.

**Testua** Aimar Gutierrez Bidarte

Apirilaren 27tik maiatzaren 1era luzatuko dira San Joseko jaiak aurtengo, eta Auzoko Jai Batzordeak dena du prest eskualdeko jaien maratoiarenekin lehenengo etapa hartzeko.

kin jarraituz. Atsedenaldirik txiki baten ostean apirilaren 30ean helduko diote berriz egitarauari Amurrioko patin eskolaren parte-hartzearekin, eta Rock con Ñ eta DJ Varro taldeen kontzertuarekin. Azkenik, maiatzaren 1ean urteroko txirrindularitza proba izango da protagonista.

## Jai-Batzordea

Lan handia egin du Jai Batzordeak egitaraua prestatzeko. "Urtero bezala, otsailetik aurrera, ostiralero, 20:00etan, Amurrioko gaztetxean biltzen gara. Urte guztietako dinamizari jarraitzen diogu pixka bat. Buelta asko ematen dizkiegu gauzei, oso jende gutxi gaudelako Jai Batzordean eta lan handia dagoelako aurretik", azaldu du Enia Hidalgok. Bide horretan, gogoratu du jai-batzordeko bilerak irekiak direla, eta au-

zokide guztiei luzatu die bertan parte hartzeko deia; "Ez dugu nahi programazioa txikiagoa izatea, ezta auzoko jaiak desagertzea ere. Horregatik, laguntza eskatzen dugu".

Bereziak dira San Joseko jaiak bertakoentzat zein kanpokoentzat, udako jaien etorrera iragartzen lehenengoak direlako: "Beti harritzen gaitu jendearen erantzunak. Hotz egin, euria egin, plaza beteta daukagu beti eta eskertzekoa da".

Jai Batzordetik "errespetuan oinarritutako eta erasorik gabeko jaiak izatea" eskatu dute. "Programazio hau guztiok gozatzeko prestatzen dugu eta hala izatea espero dugu. Jaietan arazoren bat ikusten duen edozein herritar animatzen dugu txosnara hurbiltzera eta lehenbailehen jakinaraztera", aldarrikatu du Hidalgok lan talde osoaren izenean.

**"Beti harritzen gaitu jendearen erantzunak. plaza beteta daukagu beti"**

Apirilaren 27an babarrun janarekin ekingo diete festei, eta bingoarekin lagunduko dute bazkalostea. "Arratsaldean ez dugu aparteko ekintzarik antolatu, Amurrioko San Prudentzio eguna ospatzeko egitaraua prestatu dute eta", azaldu du Enia Hidalgo Jai Batzordeko kideak. Auzotarrek 20:00etan helduko diote berriz egitarauari mariaxien kontzertuarekin; "Ondoren, UT! eta Blessive DJ taldeen kontzertuarekin itxiko dugu eguna", azaldu du Hidalgok.

"Igandean, apirilak 28, haurraren eguna ospatzen dugu. Txikientzako jolasak eta dagokien txokolate jana egingo dira. Dantza erakustaldia eta DJ Txusmaketa izango dira eguna ixteko", nabarmendu du Hidalgok egitarauaren birpasare-



## ARETXONDO TABERNA

Errotonda alboan

20:00etatik aurrera  
**BOKATA egin berriak**

ORDUTEGI JARRAIA,  
larunbat eta  
igandean zabalik

GOSARIAK  
5:30etatik aurrera



945 39 35 95



Gure berezitasuna, tokiko haragi freskoak

Ondo pasa jaietan!

Zabaleko, 8 AMURRIO 945 89 00 31

# URDUÑA Otxomaio

## EGITARAUA

### 05.03 Ostirala

**17:00 // Udal pilotalekua**  
Gimnasia erritmikoaren erakustaldia.

**18:30 // Udaletxea**  
Ongi etorria azken urtean jaiotakoei.

**19:30 // Udaletxea**  
Otxomaio kartel lehiaketako sari banaketa.

**21:00 // Foru Plaza**  
Txupinazoaren jaurtiketa udaletzeko balkoitik.

**21:00 // Gesaltza**  
Txarangaren kalejira eta txosnen irekiera.

**23:00 // Foru Plaza**  
Urrats erromeria + Dj AZID

**12:30 // Animazioa**  
Rockalean taldearekin.

**16:30 // Mus txapelketa**  
Bihotza Konpartsak antolatuta.

**16:30 // Bingo 8maio**  
Bihotza Konpartsak antolatuta.

**17:15 // Zezen Plaza**  
Herri kirolak koadrillen artean.

**19:00 // Zezen Plaza**  
Bigantxak askatzea.

**19:00 // Foru Plaza**  
Dantzaldia Pergola Orkestrarekin.

**23:30 // Foru Plaza**  
Oxabi + Dj Blessive.

**17:30 // Udal pilotalekua**  
Esku pilota partidak.

**18:00 // Gernika Plaza:**  
Erauntsi Dantza Taldearen dantza alardea.

**18:00 // Foru Plaza:**  
Puro Relajo.

### 05.07 Asteartea

**12:30 // Jubilatuen meza.**

**14:30 // Bazkaria**  
eta bingoa Urduñako jubilatuentzat.

**18:00 // Foru Plaza**  
Playback lehiaketa.

**19:00 // Jubilatuen**  
dantzaldia.

**22:30 // Foru Plaza**  
Haize Gorria + Derbia + Dj Dantzatze Prest.

### 05.08 Asteazkena

**10:30 // Agintarien**  
desfilea Antzinako Andra Mari Santutegira.

**11:00 // Meza nagusia.**

**13:00 // Kaleko**  
dinamizazioa.

**13:00 // Urduñako**  
abesbatzak abestutako meza.

**13:30 // Foru Plaza**  
Santa Zezilia musika bandaren kontzertua.

**19:00 // Foru Plaza**  
Dantza plaza Patxi Perezekin.

**21:00 // Foru Plaza**  
Orquesta La Resistencia.

### 05.09 Osteguna

**10:30 // Foru Plaza:**  
Puzgarrien jolas parkea.

**11:30 // Arrastariako**  
agintarien erromesaldia



Antzinako Andra Mari Santutegira.

**12:00 // Meza.**

**12:30 // Batibomba** eta buruhandiak askatzea.

**13:00 // Kale-dinamizazioa**  
Oilarrak taldearekin eta Etxebarria aita-seme trikitalariekin.

**14:30 // Foru Plaza:**  
Haurrentzako herri bazkaria.

**17:30 // Prezio murriztua**  
barraketan.

### 05.10 Ostirala

**17:00 // Udal pilotalekua**  
Saskibaloia partidak.

**20:00 // Kalejira Sakatu**

elektrotxarangarekin.

**22:00 // Foru Plaza**  
Koadrillen afaria Gazte Asanbladak antolatuta.

**23:30 // Foru Plaza**  
Beranduegi erromeria + Dj Kull.

### 05.11 Larunbata

**09:00 // Zezen plaza**  
XXIV. Kontzentrazio Hipikoa.

**10:00 // Gamako lakua**  
Haurren XXII. Arrantza lehiaketa.

**13:00 // Kale-dinamizazioa**  
Bilbotxeros taldearekin.

**15:00 // Gernika Plaza**  
Herri bazkaria Mugalde elkarteak antolatuta.





**TABERNA URIOSTE**



**OTXOMAI OETAKO AFARI KARTA**

| BOKATAK                              | GEHIGARRIAK                       |
|--------------------------------------|-----------------------------------|
| Solomoa.....6,00€                    | Gazta edo piper gorriak.....1,00€ |
| Txistorra sagardotan egina.....6,00€ | <b>ANOAK</b>                      |
| Saltxitxak.....6,00€                 | Patatak.....4,00€                 |
| Txibierroak.....6,00€                | Oilasko hegoak.....6,00€          |
| Hanburgesa.....6,00€                 | Tipula eraztunak.....6,00€        |

Foru Plaza 9B, Urduña (Jubilatuak) · Telefona: 615 70 12 16



## URDUÑA Otxomaio

# Leticia Sabaterrek, Puro Relajok eta Zopilotes Txirriaosek girotuko dituzte otxomaioak, besteak beste



**05.12**  
**Igandea**

**18:00 // Udal bolatokia**  
XXVII. Otxomaio bolo txapelketa.

**18:15 // Zezen plaza**  
"Zaldi-iratxoa" zaldi-ikusbizia.

**18:30 // Gernika Plaza**  
VI. Auresku eta fandango lehiaketa.

**19:00 // Josefinos:**  
Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak antolatutako kontzertua.

**21:00 // Gesaltza**  
Txarangaren kalejira.

**22:00 // Foru Plaza**  
Leticia Sabater, Bihotza konpartsak antolatuta.

**23:30 // Foru Plaza:**  
Zopilotes Txirriaos + DJ Varro.

**11:00 // Udal bolatokia**  
XXVII. Otxomaio bolo txapelketa.

**11:00 // Mikel Deuna**  
Saratxoko auzokideei harrera.

**12:00 // Zezen plaza**  
Zaldiz ibiltzeko aukera haurrentzat.

**12:00 // Meza nagusia.**

**12:30 // Erraldoi eta buruhandien kalejira.**

**14:30 // Foru Plaza**  
Herri bazkaria Marmita Elkarteak antolatuta.

**17:30 // Udal pilotalekua**  
Esku pilota partidak.

**17:30 // Kalejira Santa**  
Zezilia Bandaren eskutik.

**19:00 // Foru Plaza**  
Los 80 Principales ikuskizuna.

**21:00 // Foru Plaza**  
Agurra eta jaien amaiera Bihotzaren erreketaekin.



Maiatzaren 3tik 12ra luzatuko dira Urduñako jai nagusiak, eta plazaratu dute dagoeneko egitarau osoa.

**Testua** Aitor Aspuru Saez

Ikusgai dago dagoeneko aurtengo otxomaioetako programa. Maiatzaren 3tik 12ra luzatuko da Urduñako jai nagusia, eta egitarau oparoa presatatu du Udalak, hiriko hainbat elkarte eta eragileekin batera.

Musika eskaintzari dagokionez, eskaintza anitza egongo da festetan. Leticia Sabaterrek eta Zopilotes Txirriaosek oholtza konpartituko dute maiatza-

ren 11n. Aurreko asteburuan, aldiz, Puro Relajo izango da talde esanguratsuen, Urrats eta Oxabi erromerietan batera. Hilaren 7an, aldiz, tokiko doinuak nagusituko dira, Haize Gorria eta Deriba taldeen eskutik.

**Ekintza berriak**

Orokorrean, betiko eskema izango dute jaiak. Bi asteburuz luzatuko dira, baina asteazkenaren izango da egun nagusia, maiatzaren 8a, orduan ospatu-

ko baita Urduñako Antiguako Andra Mariren Jaia.

Ez dira ohiko jarduerak falta: patata tortilla eta paella txapelketa, auresku eta fandango lehiaketa, herri bazkaria eta pilota edota saskibaloia partidak, besteak beste.

Horrez gain, iaz abian jarritako kuadrillen arteko herri kirolak errepikatuko dituzte aurtengoan, eta ekintza berria batu dute programara: play-back txapelketa.



APARTAMENTOS TURÍSTICOS  
*Ciudad de Orduña*

6 APARTAMENTU HIRIGUNEAN FORU PLAZAN

Erregistro zenbakia: E BI 687-692

**INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK**

www.apartamentosorduna.com · 621 209 221 · info@apartamentosorduna.com

Ondo pasatu jaietan!

Restaurante  
**HINKIEN**  
Orduña

SORMENEZKO, EGUNGO ETA KALITATEZKO SUKALDEA


*Esperientzia gastronomiko desberdina*

Aurrez erreserbatzea gomendatzen da

Kale Barria, 13 Orduña · 945 38 48 92

**BATZOKI!**  
TABERNA

946 09 56 49  
Burgos Kalea, 20  
48460 Orduña (Bizkaia)



# Urduñar mendizaleen lekukoa hamarkadaz hamarkada aurrera

1964ko abenduan sortu zuten Txarlazo Mendi Taldea. Aurten 60 urte beteko ditu klubak eta Otxomaio jaietako pregoia irakurtzeko ohorea izango dute bertako kideek. Aipamen berezia egin nahi diete gaur egun bizirik jarraitzen duten taldeko hiru sortzailee: Tetxu Guaresti, Txutxin Guaresti eta Sabino Pinedo.



**Testua eta argazkiak** Aimar Gutierrez Bidarte

Txarlazo Mendi Taldeak izango du Otxomaioetako lehen suziria jaurtitzeko ardura. Klubaren sorreratik 60 urte betetzen dira aurten, eta herritarrek jaietako pregoilari izateko hautatu dituzte hiri-ko mendizaleak.

“Udaltexeko balkoira ateratzea egundoko ohorea da edozein urduñarrentzat —adierazi du Juan Angel Velez Txarlazoko kideak—. Ez dugu aparte-ko ezer prestatu, programan sartu dugun testua irakurri-ko dugu ozen. Baina bereziki omenaldia egin nahi diegu 1964. urtean taldea sortu zuten eta gaur egun oraindik bizirik dauden hiru kideei: Sabino Pinedo, eta Txetxu eta Txutxin Guaresti”.

## Otxomaioetan presente

Duela hamar urte ere udaletxeko balkoian izan ziren Txarlazo Mendi Taldekoak, orduko hartan taldearen mende erdia ospatzen. Eskarmentua badute, beraz, Otxomaio festei hasiera emateko protokoloari dagokionez, baina udaletxeko balkoikoa ez da festetan antolatzen duten ekintza bakarra. Urtero urtero mendi irtee-

ra bat antolatu izan dute, herriko haurrak mendira hurbiltzeko asmoz. Aurten maiatzaren 19an egingo dute irteera hori, Udaberria Mendian programazioaren barruan. Duela urte batzuk, gainera, txosna ere jarri zuten, boulderraren eraikuntza finantzatzeko asmoarekin.

## Mendizaleen lekukoa

Txarlazo Mendi Taldea 1964an sortu bazuten ere, Velezek oso argi dauka mendizaleetasuna askoz lehenago errotu zela Urduñan. 1923an eratu zen Club Deportivo Orduñesek txirrindularitza eta alpinismo atalak zituen, eta jarduera oso bizia zen. “Baziren Fraileburu eskalatu zuten tokiko mendizale asko, Sebastian Diaz de Lezana esaterako. Taldeko kide zen Enrike Uriarte delako batek Mont Blanc igo zuen 1926an”, azaldu du Velezek.

Taldearen ondarea ez da soilik izaera mendizalean islatuta geratu; hain zuzen ere, Club Deportivo Orduñako kideak izan ziren 1927an Txolopeko aterpea eraikitzeko eskaera luzatu eta gauzatu zutenak, edota inguruko tontorretan lehenengo postontziak jarri zituztenak.

Guda Zibilak eta erregimen frankistak, ordea, guztiz gera-

## URDUÑA Otxomaio

tu zuten 1920 eta 1930eko hamarkadetako Urduñako kirol jarduera bizia.

1960eko hamarkadak hai-ze berria ekarri zuen, Scout taldeetan biltzen ziren gazteak, garaiko apaiz aurrerakoi eta ezkertiarrek hauspotuta, mendi-irteerak eta kirol ekintzak antolatzearekin zioten. Horrelako giro batean bildu ziren Otxomaioetako txupinazoan protagonista izango diren Guaresti anaiak eta Sabino Pinedo. Hiriko beste zenbait gazterekin eta Nemesio Bello Portu apaizarekin batera Txarlazo Mendi Taldea sortu zuten; Grupo de Montaña Charlazo, ch-rekin, has-tapenetako urte haietan.

Jarduera bizia mantendu du klubak bere sorreratik, eta gaur egun ere grin berdinari eusten diote. Gaur gaurkoz 539 bazkide daude klubean, eta azken urteetan emakumeen parte hartzea nabarmen handitu dela azpimarratu du Velezek.

Bazkideen artean federatu kopuru altuari ere erreparatu dio klubeko kideak; izan ere Txarlazo Mendi Taldearen bitartez Euskal Mendizale Fede-

**“Omenaldia egin nahi diegu 1964. urtean taldea sortu zuten eta gaur egun oraindik bizirik dauden hiru kideei: Sabino Pinedori, eta Txetxu eta Txutxin Guarestiri”**

raziora batzen diren mendizale kopurua esanguratsua da.

#### 60. urteurrena

Efemeridea ospatzeko ekintzaz beteko dute Urduña Txarlazo Mendi Taldeko kideek. Udazkenean bilduko dituzte ekimen gehienak: hitzaldiak, erakusketak, argitalpenak... Mendi irteera berezia ere pres-tatuko dute urteurrenaren testuinguruan, eta hiriko tabernetako telebistetan proiektatzeko argazki zaharrez bete-riko USB memoriak banatuko dituzte.

Urtero bezala Mendi Astea antolatuko dute aurten ere, eta izerditako berezia aterako dute klubaren logoarekin.

Etorkizunera begira ere jarri dira, eta sorrerako asmo berdinekin jarraitu nahi dute aurrera, mendizaletasuna lau-haizetara hedatzea. Mendizale gazteak erakartzen jarraitu nahi dute ere, baita duela gutxi ekin dioten azken egitasmoari segida ematen ere: Gorobelego borda eta aterpeak zaharberritzearekin. Eta, nola ez, Euskal Herriko mendiak igotzen jarraitu.



# Babestutako edukia

# ARABAKO JAIAK

20  
24

San Prudentzio eta Estibalizko Andre Maria



APIRILAK 28 - MAIATZAK 1